



## **EUSARGHIk salatu du Euskadin ez dagoela adostasunik eta ekitaterik AGHN duten pertsonentzako arretan**

*-AGHN, Arreta Gabeziaren eta Hiperaktibitatearen Nahasmendua, ez da mugen kontu bat ezta izaera kontu bat ere. Neurogarapenaren nahasmendu bat da, eta beharrezko ditu arreta goiztiarra, jarraipena eta laguntza bizitza osoan zehar.*

*-Garaiz artatu gabeko haur bakoitza premiarik gabe katramilatutako bizitza bat da. Prebentzioa ezin da luxu bat izan, ezta hitz huts bat ere; prebentzioak abiapuntua izan behar du.*

Bilbon, 2025eko urrian

Urriaren 27an AGHNaren Eguna aldarrikatzen FEAADAH Espainiako Federazioak abiatutako kanpaina babesten du EUSARGHIk. Harekin bat egiten du eta gure kolektiboari benetako arreta ematea eskatzen dio Euskal Osasungintza Publikoari.

Ateak itxita topatuz urteak pasa ostean, aurtan EUSARGHIk lortu du komunikaziorako bide bat irekitzea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin.

Elkarriketarako zirrikitu horrekin itxaropentsu egonagatik ere, gaurko egunez, urriaren 27an, AGHNren Espainiako Egunean, EUSARGHIk berriz ere ahotsa altxatu du salatzeko AGHN duten pertsonen arreta publiko eraginkorrik gabe jarraitzen dutela Euskadin.

Adostasuna eta ekitatea falta da Euskadin AGHN duten pertsonentzako arretan. Izan ere, irizpideetan desberdintasun handiak daude oraindik diagnostikoaren unean, Osakidetza jotzen den probintziaren arabera. Era berean, nahasmenduaren larritasuna eraginkortasunez ebaluatzeko gabezia asko ikusten dira profesional batzuen artean, batez ere Gipuzkoako osasun zentroetan.

Maiz, ebidentzia zientifikoa bera ukatzen da, nahasmendua existitzen dela ukatuz, eta ondorioz, arreta bera eta dagokion espezialistarenganako sarbidea ezeztatzen da.

Horri gehitu behar zaio osasun zentroetan AGHN duten helduek, oraindik ere, esaldi onartezinak entzun behar izaten dituztela 2025ean: “hori ez da existitzen”, “honaino iritsi bazara, ez zara horren gaizki egongo”, “hau ez da larria”. Eta horrela, abandonua normalizatu egiten da. Batzuetan, arazoa antsietate edo depresio gisa tratatzen da, eta ez da planteatu ere egiten muinean diagnostikatu gabeko AGHN bat egon daitekeenik.

### **AGHN ez da nahasmendu txikia**

“Ezin da AGHN nahasmendu txiki bezala hartzen jarraitu. Neurogarapenaren nahasmendu bat da, eta beharrezko du arreta goiztiarra, jarraipena zein laguntza bizitza osoan zehar.”, esan du Maite Urkizu FEAADAHeko presidentek. “Urteak daramatzagu benetan guztientzat izango den osasun publiko bat aldarrikatzen, ez dituenaz baztertuko hura gehien behar dutenak. Bigarren mailako pazienteak gara, osasun mentalaz harro hitz egin, eta oinarritzakoari, prebentzioari, eta batzuetan ebidentzia zientifikoari jaramonik egiten ez dion sistema batean”.





EUSARGHIK ohartarazi du diagnostiko eta tratamendu faltak haurren artean sintomak larriagotzen dituela eta arriskuak biderkatu helduarorako. Gazte ugari muturreko egoeratarira iristen dira, inork ez zuelako lehen zantzuei arretarik jarri. “Garaiz artatu gabeko haur bakoitza premiarik gabe katramilatutako den bizitza bat da. Prebentzioa ezin da luxu bat izan, ezta hitz huts bat ere. Prebentzioak abiapuntua izan behar du”, azpimarratu du Urkizuk.

Horregatik, EUSARGHIK, FEAADAHren eskaera nazionalaren berri emanez eta Euskadiko errealitateari begira, premiazko bi konpromiso errealista eskatzen dizkie osasun arduradunei:

1 -Arreta goiztiarra eta prebentiboa Osakidetzan, haurren posta kodearen mende egongo ez diren diagnostikorako irizpide uniformeekin, ebidentzia zientifikoan oinarrituta, eta lehen sintomen aurrean jardungo duten diziplina anitzeko taldeekin.

2- AGHN kronikoa dela aitortzea, eta bizitza osoan zeharreko osasun laguntza izango duela bermatzea.

“Neurririk hartu gabe pasatzen den urte bakoitza galdutako aukera bat da. Ez dugu pribilegiarik eskatzen, justizia eskatzen dugu. Osasun mental publikoa ezin da familiaren posta kodearen edo erosteko ahalmenaren arabera izan”, nabarmendu du presidenteak.

EUSARGHIk gogorarazi du, ezer ez egitearen kostua ez dela zenbakitan soilik neurtzen: neurtzen da etendako bizitzetan, autoestimu suntsietan, alferrik galdutako potentzialetan.

-----  
EUSARGHI FEDERAZIOA -EUSARGHI FEDERACIÓN EUSKADIKO ARRETAREN GABEZIA ETA HIPERAKTIBITATEA  
FEDERAZIOA- FEDERACIÓN VASCA DE DÉFICIT DE ATENCIÓN E HIPERACTIVIDAD. Eusarghi 2009an sortu zuten Euskadiko 3 elkarteek: ADAHgi (Gipuzkoa) 2002an sortua eta 2006an Onura Publikoko Elkarte gisa izendatua; AHIDA (Bizkaia) 1999an sortua; eta ANADAH (Araba) 2002an sortua. Hona hemen helburuak:

1. Arreta Gabezia eta Hiperaktibitate Nahasmendua, haren sintomak eta haien esku hartze egokirik gabe gerta daitezkeen ondorioen berri zabaltzeko indarrak batzea.
2. Autonomia Erkidegoko erakundeen aurrean, Eusko Jaurlaritzaren aurrean, ahots bakarrarekin hitz egitea.
3. AGHN duen pertsona baten familiei laguntzea pairatzen duten babesgabetasun egoeran, gizarteak ez dakielako zer den eta zer dakarren nahasmendu hori pairatzeak.

FEAADAH Arreta Gabezia eta Hiperaktibitateari Laguntzeko Elkarteek Espainiako Federazioari buruz, FEAADAH irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da; 2002. urtetik AGHNren ikerketa sustatzen du, eta lankidetzan aritzen da nahasmendu hori aztertzeke eta artatzeko erakunde ospetsuekin hezkuntza-arloetan, arreta sozial eta zientifikoetan. Bere ekintza eremua nazionala da eta bere baitan 58 elkarte federatutik gora sartzen dira. FEAADAH, gainera, ADHD-Europe, TDAHren arretarako elkarteek sare europarreko kide sortzaile eta aktiboa da.

#### Harremanetarako:

**Eusarghi/Adahigi: 943459594**

**Itziar Orive (EUSARGHI eta AHIDAKo lehendakaria) 671330373**

**Maite Urkizu (FEAADAHko lehendakaria eta ADAHIGIKo koordinatzailea) 608557044**





## EUSARGHI denuncia la falta de consenso y equidad en la atención a las personas con TDAH en Euskadi

- *El TDAH no es una cuestión de límites ni de carácter. Es un trastorno del neurodesarrollo que requiere atención temprana, seguimiento y apoyo a lo largo de toda la vida.*
- *Cada niño o niña no atendido a tiempo es una vida que se complica innecesariamente. La prevención no puede ser un lujo ni una palabra vacía, debe ser el punto de partida.*

Bilbao, octubre de 2025

EUSARGHI como Federación Vasca de TDAH, apoya y secunda la campaña lanzada por FEAADAH (Federación Española de asociaciones de ayuda al TDAH) celebrando el 27 de octubre como DÍA DEL TDAH. Reclaman a la Sanidad Pública Vasca una atención real a nuestro colectivo.

Después de años y años de puertas cerradas, este año EUSARGHI ha conseguido por fin abrir una vía de comunicación con la Consejería de Sanidad del Gobierno Vasco.

A pesar de estar esperanzados con ese incipiente diálogo, hoy, 27 de octubre, Día Nacional del TDAH, EUSARGHI alza de nuevo la voz para denunciar que las personas con TDAH en muchas ocasiones siguen sin atención pública efectiva en el País Vasco.

Falta consenso y equidad en la atención a las personas con TDAH en Euskadi. De hecho, se siguen constatando grandes diferencias de criterio en el momento del diagnóstico según la provincia en la que se acude a Osakidetza. Así mismo, se aprecian muchas deficiencias para evaluar con efectividad la gravedad del trastorno entre algunos profesionales, sobre todo en los centros sanitarios de Gipuzkoa.

En muchas ocasiones se llega a negar la evidencia científica misma, rechazando la existencia del trastorno, y negando tanto la atención como la derivación al especialista correspondiente.

Por todo eso, y porque muchas familias con hijos o hijas con TDAH siguen obligadas a recurrir a profesionales privados, el acceso a la sanidad mental pública continúa siendo un privilegio desigual.

Y a eso hay que añadir que en los centros de salud, los adultos con TDAH todavía escuchan frases inaceptables en 2025: “eso no existe”, “has llegado hasta aquí, no estarás tan mal”, “esto no es grave”. Y así, el abandono se normaliza. En ocasiones, se llega a tratar como una ansiedad o depresión y ni siquiera se plantea la posibilidad de que en la raíz de la situación esté un TDAH sin diagnosticar.

### El TDAH no es un trastorno menor

“El TDAH no puede seguir tratado como un trastorno menor. No es falta de voluntad ni de límites: es un trastorno del neurodesarrollo que necesita atención temprana, seguimiento y apoyo a lo largo de toda la vida”, afirma Maite Urkizu, presidenta de FEAADAH.





“Llevamos años reclamando una sanidad pública que realmente sea para todos y todas, no una que excluya a quienes más la necesitan. Somos pacientes de segunda en un sistema que se llena la boca hablando de salud mental mientras ignora lo básico, la prevención, y en algunas ocasiones, la evidencia científica”.

EUSARGHI alerta de que la falta de diagnóstico y tratamiento en la infancia agrava los síntomas y multiplica los riesgos en la edad adulta. Muchos jóvenes llegan a situaciones extremas porque nadie escuchó sus primeras señales o las negó. “Cada niño o niña no atendido a tiempo es una vida que se complica innecesariamente. La prevención no puede ser un lujo ni una palabra vacía. Debe ser el punto de partida”, insiste Urkizu.

Por ello, EUSARGHI, haciéndose eco de la demanda nacional de (FEAADAH) y adaptándose a la realidad del País Vasco, reclama dos compromisos urgentes y realistas a los responsables sanitarios:

1. Atención temprana y preventiva en Osakidetza, con criterios uniformes para el diagnóstico, que no dependan del código postal del niño o de la niña, basados en la evidencia científica, y con equipos multidisciplinares que actúen ante los primeros síntomas.
2. Reconocimiento del carácter crónico del TDAH y garantía de un acompañamiento sanitario durante toda la vida.

“Cada año que pasa sin medidas es una oportunidad perdida. No pedimos privilegios, pedimos justicia. La salud mental pública no puede depender del código postal ni del poder adquisitivo de una familia”, subraya la presidenta.

EUSARGHI recuerda que el coste de no actuar no se mide solo en cifras: se mide en vidas truncadas, en autoestima quebrada, en potencial desperdiciado.

-----  
*EUSARGHI FEDERAZIOA -EUSARGHI FEDERACIÓN EUSKADIKO ARRETAREN GABEZIA ETA HIPERAKTIBITEA FEDERAZIOA- FEDERACIÓN VASCA DE DÉFICIT DE ATENCIÓN E HIPERACTIVIDAD. Eusarghi se crea en el 2009 por parte de las 3 asociación del País Vasco: ADAHlgi (Guipúzcoa) creada en 2002 y Declarada de Utilidad Pública en 2006, AHIDA (Vizcaya) creada en 1999, Declarada de Utilidad Pública en 2024 y ANADAHI (Álava) creada en 2002.*

*Los objetivos son:*

1. Aunar esfuerzos para difundir lo que es el Trastorno por Déficit de Atención e Hiperactividad, sus síntomas, y las consecuencias a las que se puede llegar sin una intervención adecuada.
2. Presentarnos como una sola voz ante instituciones de ámbito autonómico véase Gobierno Vasco.
3. Cubrir la situación de desamparo que sufren las familias con un afectado por TDAH ante el desconocimiento social de lo qué es y lo que supone padecer este trastorno

*Sobre FEAADAH La Federación Española de Asociaciones de Ayuda al Déficit de Atención e Hiperactividad (FEAADAH) es una asociación sin ánimo de lucro que, desde el año 2002, Declarada de Utilidad Pública en 2024, se dedica a promover la investigación del TDAH y a colaborar en áreas educativas, de atención social y científicas, con entidades consagradas al estudio y atención de este trastorno. Su ámbito de acción es nacional y en su organización se incluyen más de 58 asociaciones federadas. FEAADAH es, además, socio fundador y activo miembro de la red europea de asociaciones de atención al TDAH, ADHD-Europe*

Contacto:

**Eusarghi/Adahigi: 943459594**

**Itziar Orive (presidenta EUSARGHI y AHIDA) 671330373**

**Maite Urkizu (presidenta FEAADAH y coordinadora de ADAHlgi) 608557044**

-----

